# ON BIZENTE ARANA JAUNARI.

Bazoazte denak, elkarren ondoren,
Utzirik gu emen triste, bakarrik:
Bazoazte denak Euskal-erritikan,
Leku bat obea irichi nairik.

Bazoazte... ala nola joan oi diran
Pozez sort-errira deserritikan,
Beren mendarteak ikus gabetanik
Bizi diradenak penaturikan.

¡Zorionekoak, mundu au lagarik,
Egatzen diranak beren kabira:
Tristeak, negarrez segitzen dutenak
Emen bean, beti gora begira!

Euskal-izkiretan anaiyak giñanak,
Arki gaitezela pozez beteak,
Denak zeruetan beti kantatuaz
Jaunaren gloriya kabugabeak.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

# ON BIZENTE ARANA-KOARI.

Ill zera, zure ama Bizkaiaren kopeta apaindurik, bi perla eder oiekiñ; *Oro y oropel* eta *Los últimos iberos.*

¡Onra zure izenari! ¡Otoitza zure animarentzat!

ANTONIO ARZÁC.